



EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Azkenengoak lehenengo izango dira eta lehenengoak azkenengo”

2023ko irailaren 24a
Urteko 25. igandea (A)

Mateo 20, 1-16.

“Izan ere, Jainkoaren erregetzarekin mahastinagusiarekin bezala gertatzen da. Goizean goiz bere mahastirako langile bila atera zen. Eguneko lanaren ordainetan zilarrezko txanpon bana emateko tratua egin ondoren, mahastira bidali zituen langileak.

“Goizeko bederatziak aldera berriro atera zen eta, beste batzuk enparantzan lanzain ikusirik, esan zion: ‘Zoazte zuek ere nire mahastira, eta ordainduko dizuet bidezko dena’. Eta haiek ere joan egin ziren.

“Atera zen berriro hamabiak aldera eta hirurak aldera, eta gauza bera egin zuen.

“Arratsaldeko bostak aldera ere atera zen eta, bertan batzuk gelditu aurkiturik, esan zion: ‘Zertan zaudete hemen egun osoan lanik egin gabe?’ Erantzun zioten: ‘Ez gaitu inork lanerako hartu’. Hark, orduan: ‘Zoazte zuek ere nire mahastira’.

“Iluntzean, nagusiak mahastiko arduradunari esan zion: ‘Deitu langileei, eta emaiozu bakoitzari bere soldata, azkenengotik hasi eta lehenengora’.

“Etorri ziren, bada, arratsaldeko bostetakoak, eta zilarrezko txanpon bana jaso zuten. Lehenengo ordukoak, txanda iritsi zitzaizenean, besteek baino gehiago jasoko zutela uste zuten; baina haiek ere zilarrezko txanpon bana jaso zuten.

“Orduan, nagusiagatik gaizki-esaka hasi ziren; eta esan zioten berari: ‘Azkenengo hauek ez dute ordu bete besterik lan egin eta guri adina ordaindu diezu, egun osoko nekea eta beroa jasan ditugunoi adina!’ Baina nagusiak erantzun zion haietako bati: ‘Adiskide, ez dizut bidegabekeriarik egiten; ez al dugu tratua zilarrezko txanpon batean egin? Tori dagokizuna eta zoaz; zuri adina eman nahi diot azkenengo honi ere. Ezin ote dut neure diruaz nahi dudana egin? Ala ni ona naizelako ezinikusia didazu?’

“Horrela, azkenengoak lehenengo izango dira eta lehenengoak azkenengo”.

Adiskide, ez dizut bidegabekeriarik egiten; ez al dugu tratua zilarrezko txanpon batean egin?

BORONDATE ESKANDALAGARRIA

José Antonio Pagola

Udazkena zen segur aski, eta Galileako herrietan mahatsa biltzen ari ziren buru-belarri. Bere lurrik ez zuen jendea ikusten ari zen Jesus enparantzetan, eguneko soldata irabazteko, lanerako norik hartuko zain. Nola lagundu, ordea, jende gaixo hari Jainkoak gizon-emakume guztiez duen borondate misteriosua suma zezan?

Parabola txundigarri bat kontatu zion Jesusek. Hala, ahal zituen langile guztiak lanerako hartu zituen jaun batez hitz egin zion. Jauna bera etorri zen enparantzara behin eta berriz, ordu desberdinetan. Eguna bukatzean, lanaldia erabat desberdina izan zen arren, guztiei denario bana eman zion: bizitzeko familiak behar zuena.

Lehen lanaldikoek protesta egin zuten. Ez ziren kexu diru gehiago edo gutxiago hartu izanaz. Hau da iraingarri iruditu zitzaiena: jaunak «guri bezalako tratua eman die azken lanaldikoei». Protesta egin zutenen bozemaileari eman zion erantzuna harrigarria da: «Inbidia izan behar ote duzue ni ona naizelako?»

Parabola hain iraultzailea da, non, segur aski, hogeit hamar menderen ondoren ere, ezin ausartu baikara hura aintzat hartzen. Egia ote da Jainkoa hain ona izatea, haren aurrean inolako merezimendurik eta egintzarik ez dutenekin ere? Egia ote da haren Aita-bihotzak inolako pribilejiorik ez behar izatea, mahastian lan egin dutenen lan handiago edo txikiagoan oinarritua den pribilejio-beharrik ez izatea?

Gure buru-eskema guztiak koloka gelditzen dira Jainkoaren maitasun aske eta atzemanekin hori agertzean. Horregatik, eskandalagarri gertatzen zaigu, merezimenduz beterik ageri den «jende jainkozaleaz» Jesus ahaztu eta, hain zuzen, Jainkoaren aldetik inolako sarirako eskubiderik ez dutenengana hurbiltzen dela ikustea: Elkargoa betetzen ez duten bekatariengana edo tenplurako bidea ezagutzen ez duten prostituituengana.

Gu, sarritan, geure kalkuluekin ibiltzen gara, Jainkoari guztiekin on izaten utzi nahi ezta. Ez dugu jasaten guztiekiko haren ontasun mugagabea. Bada halakorik merezi ez duen jenderik, gure ustez. Uste izaten dugu Jainkoak nori berea, merezi izan duena, eman beharko liokeela, eta hura bakarrik. Baina eskerrak Jainkoa ez den gu bezalakoa. Bere Aita-bihotzez, Jainkoak badaki guk uko egiten diogun jende horrekin ondo konpontzen.